

Euskaltzaindiak eta BBK-k sarituriko liburuak argitaratu dituzte

ELEBERRI, ANTZERKI, OLERKI ETA SAIKERA MAILAK SARITU DIRA

2005eko literatur lehiaketara lanak aurkezteko epea urriaren 16an amaituko da

IRUÑEA. Euskaltzaindia-Bilbao Bizkaia Kutxa Literatur Sarietan iaz garaile izan ziren lau literatur-lanen argitalpenak aurkeztu ditu akademiak: Txomin Agirre eleberrisaria Juan José Ispizua Hormaetxarentzat izan da, *Harizpeko neskaren afera* lanarekin; Toribio Alzaga antzerkisaria Pantxo Hirigarai eskuratu du, *40 urteak* obrarekin; Felipe Arrese Beitia olerkisaria Aintzane Galardi Portuk irabazi du, *Itoti urdinaren azpian* lanarekin; eta Mikel Zarate saio-saria Xabier Agirre Urteagarentzat izan zen, *Zertan dira askatasuna eta berdintasuna gaur egun?* lanarekin.

Juan José Ispizua aspalditik idazten badu ere, badira bi urte idazteari serio ekingo ziola erabaki zuela. Ttu-Ttua aldizkarian kolaboratu izan du. Ipuin eta poesia alorrean, hainbat sari jaso ditu Bermeon eta Ondarroan, eta orain dela hiru urte Euskaldunon Egunkariak antolatzen zuen Erreportaje Lehiaketaren bigarren saria jaso zuen. Kazetari izana da eta Argia aldizkarian, Egin egunkarian, Gernika eta Bermeoko Hilean Behin hilabetekarietan eta Bermeoko Berrietan Blai herri astekarian ere lan egin du. Bestalde, AEK-ko eta UEUKo Prentsa Bulegoetan, kazetari bezala jardun du.

Pantxo Hirigarai Baigorri bizi da eta 1984az geroztik, bertako Iru-



Xabier Agirre, Pello Telleria, Joserra Bilbao, Andres Urrutia eta Gorka Martinez. ARGAZKIA: EUSKALTZAINDIA

legi Irratiko langilea da. Xirrixti Mirrixti antzerki taldeko aktorea da, eta bakarkako saioak ere egiten ditu.

Aintzane Galardi Oartzundarra Euskal Filologia Lizentziatura eta Kultur Baliabideen Kudeaketa espezializazioa Deustuko Unibertsitatean burutu zituen. 1996az geroztik, Nafarroan dihardu lanean, aurten Altsasun Aralarko Mikel Donea ikastetxeko irakasle bezala.

Azkenik, Xabier Agirre Filosofia ikasketak burutu ditu Salamancako Unibertsitate Pontifizian, Norberto Bobbio-ri buruzko *La democracia en Norberto Bobbio* tesinarekin. Zizur

SARIDUNAK

● Txomin Agirre eleberrisaria:

Juan José Ispizua Hormaetxea. Lana: Harizpeko neskaren afera.

● Toribio Alzaga antzerkisaria:

Pantxo Hirigarai. Lana: 40 urteak.

● Felipe Arrese Beitia olerkisaria:

Aintzane Galardi Portu. Lana: Itoti urdinaren azpian

● Mikel Zarate saio-saria:

Xabier Agirre Urteaga. Lana: Zertan dira askatasuna eta berdintasuna gaur egun?

Nagusiko Bigarren Hezkuntzako Institutuan, Filosofia irakasle da eta John Rawls-i buruzko tesia mamitzen dihardu EHUan.

1988an, 1989an, eta 1990an euskarazko literatur lanak sortarazteko bekak lortu zituen, eta azken hiru urteotan, Euskalerrria Irratian kolaboratu izan du, lehen *Metropoli forala* eta *Karrikoluzio* irratsaioetan. Hainbat lan argitaratu izan ditu eta 1992. urteko Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gazteen Literatur Lehiaketan saritua izan zen, *Ivonne zai edukiko nuen* ipuinarekin.

2005eko literatur lehiaketara lanak aurkezteko epea urriaren 16an amaituko da. >D.N.

MADDI IRAZOKIK BERE LANAK AURKEZTEN DITU BERAN

Erakusketa Kultur Etxean bisitatu daiteke uztailaren 1a eta 24a bitarte

IRUÑEA. Maddi Irazoki artista berarrak bere pinturak, eskulturak, grabatuak, zianotipia eta kamisetak aurkeztuko ditu erakusketa batean uztailaren 1etik 24ra bitartean, Bera-ko Kultur Etxean.

Irazoki 1977. urtean jaio zen Beran. Arte Ederretako ikasketak Bilbon hasi zituen eta Bartzelonan amaitu. Uztailaren burutuko duen erakusketan, hainbat pintura, eskultura, grabatu, zianotipia eta kamiseta aurkeztuko ditu. Erakusketa honetan, era "klasikoan" lanak zintzilikatu ohi diren moduan saihestea da bere helburua, ez baitu egokia denik uste.

Edozein lan inguruan jaiotzen da, zentzumenek jaso ditzaketen txiki-keri guztien batuketan; ikusmenak, usaimenak, entzumenak, elkarriketa eta gogoetak ideia sortzeko ahalmena dute, eta horrek ekartzen dio lan egiteko beharra Irazokiri.

Prozesuak erabateko indarra dauka, garapenak sortzen baitu pieza. Baina pieza ez da amaiera artista berarrarentzat, ikuslearengana heltzean amaitzen baita prozesua. Ikusle bakoitzean amaiera ezberdin bat dago, hartzaile bakoitzarekin aldatzen baita. Horregatik saihestu nahi du lanak paretetan zintzilikatzea, inperstonala delako. >D.N.

BI ASTEKO BARNETEGIAK ESKAINTZEN DITU IKA-K AURTEN

Zubieta eta Lesakan izango dira eta urrats guztiak aukeratu daitezke

IRUÑEA. IKA-k zortzi barnetegi ezberdin prestatu ditu uda honetarako Lesaka eta Zubietan. Guztiak bi asteko ikastaroak izango dira eta bakoitzak 90 klase-ordu izango ditu. Uztailaren lehenengo bi asteetan Zubietan egon dena izan ezik, beste barnetegi guztiek 3. urratetik aurrerako mailak eskainiko dituzte, baita EGArako prestaketak ere. Ikasleak 390 euro ordaindu beharko du eta horretan eskolak eta ostalua sartzen da, baita asteburuetan ere. Barnetegiak osatu arte irekita egongo da matrikulatzeko epea, eta nahikoa da euskaltegi batera jo edo telefonoz deitzearekin. >D.N.

IKA BARNETEGIAK

Uztailaren	
4-17	Zubieta 5.tik aurrera
18-31	Zubieta 3.tik aurrera*
18-31	Lesaka 3.tik aurrera*
Abuztuaren	
1-14	Zubieta 3.tik aurrera*
1-14	Lesaka 3.tik aurrera*
15-28	Lesaka 3.tik aurrera*
Irailaren	
29-11	Lesaka 3.tik aurrera*
12-25	Lesaka 3.tik aurrera*

*EGA barne

Literatura

INMA ERREA

Osasuna, husteko

'NOLA HUSTU NUEN GURASOEN ETXEA'

Alberdania, 2005 Jatorrizko izenburua: Comment j'ai vidé la maison de mes parents, 2004 Egilea: Lydia Flem. Itzultzailea: Joxan Eloseggi

S AIAKERATIK adina du liburu honek kontakizunetik, eta auto-laguntzako liburutik beste, oroitidazkitik. Hibrido bat, inondik ere. Niri pasarte batzuek Yolanda Arrietak Jostorratza eta Haria liburuan isuritako gogoetak ekarri dizkirate gogora, eta beste batzuek, bizitza bera. Edonola ere, zuzeneko esperientzia baten ispilu fidela iruditu zait, trampa handirik gabea, baina irakurleek haien burua harrapatzeko amarruz bete. Egileak ezin du ukatu psicoanalisiarekin duen lotura, eta agerian uzten du, bestalde, zein iturritatik edan duen, hala psikoanalisiaren esparruan nola literatu-

raren alorrean. Hala ere, ezin hemen aurkitu testu psikologikoak maiz zamatzen dituzten hitzetatik lagin handirik. Horien ordez, bizitzaren zuzeneko aipu egiten duten izenak, objektuen eta egoeren deskribapen zehatz eta konkretuak. Gogoeta ugari biltzen ditu liburuak, baina abstrakzioaren estalkiari itzurtzen zaizkio horiek, eta bizipenen euskarriari lotu.

Gaia ez da samurra: gurasoak hildakoan oinordekoek, seme-alabek, haien etxea husteko beharra, gurasoen desagertzeak berak dakarren doluaren eta sentimendu kontrajarrien atakan. Baina, zeregin hori estakuru, beste gauza anitz aipatzen ditu egileak, beste errealtate asko xehekatu, heriotzarekin beste bizitzarekin, eguneroko bizipenekin, zerikusia duten hamaika kontu azaldu. Eta horien artean, oro har jendaurrean aipatzeko gaitz diren zenbait. Gurasoen eta

seme-alaben arteko maitasun-herrak, txikitako bizipen gozomikatzak, familiaren baitako sekretuak eta esan-gabeak -kasu honetan egilearen familia juduak holokaustoaren inguruan bermatutako isiltasuna-, aitzinakoeekin lotzen gaituzten sustrai ikusiezkin bezain sendoak, ama-alaben arteko harreman sarritan nahasiak...

Gurasoen etxea hustea ez baita jarduera material hutsa, esanahi eta sinbolo askotarikoaz beteriko zeregina baizik, eta oinordetza ondare fisikoaren ekarle izateaz gain sentimenduen hondabide ere izan daiteke. Edo sendabide. Ur horietan murgiltzen ausartu da Lydia Flem, gurasoen etxea hustean bere baitatik azaleratutako tristura, poza, herstura, oroitzapen, pentsu eta galderak oro adierazteko gogoari eutsita. Idazleak galde ikurrez bete du liburuak, eta hipotesi batzuk ematen baditu ere, ez du ia tesirik proposatzen. Harrigarria da, bestalde, nola liburu hau, esperientzia guztiz pertsonalaren eta gizarte maila jakin baten berri

emanik ere anitz jenderenak izan daitezkeen bizipen hagitz unibertsalen oihartzuna ekartzeko gauza den.

Itzultzailea, Joxan Eloseggi, zorrotz aritu da, eta oparo, egileak deskribatzen dituen egoeren kolore, irudi eta ñabardura guztien berri emateko arretatsu beti. Itzulpenak ez du lausotzen egileak azaldutako errealtatea, eta bere osoan ikustarazten digu garai, herri eta gizarte maila jakin batzuen argazkia. Batzuetan, film bat ikusten ari garela irudikatzeraino.

Liburu bereziki gomendagarria da hau beste hainbat galeraren artean, gurasoena pairatzeko adinera iritsi direnendako, baina berdin-berdin izan daiteke interesgarri bizitzako oparien eta galmenen gainean hausnartzeko gogo duen edonorendako zein pertsonen bizipen eta sentimenduen gaineko jakin-minak jotzen dituen orrendako. Edo, besterik gabe, Europako historia hurbila ahazten ez duen kontakizun barnekoi batekin gozatu nahi dutenendako.